

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko apirilaren 9an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko apirilaren 2ko datarekin, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia

Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O.ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren ordeaz, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi duena.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Rosa Madina andreak, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendariak, bertaratze ezina adierazi du.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Prozedura irekiaz OSAKIDETZAREN 144 ZENTROETAN ENERGIA AUDITORIAK ETA ZIURTAPENAK EGITEKO KONTRATUA (DIRTEC/18/011)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
2. *Prozedura irekiaz EEE TALDEAREN ETORKIZUNEN EREDU ESTRATEGIKOAREN DEFINIZIORAKO ETA BERE ANTOLAKETAREN ERALDAKETA PLANERAKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN KONTRATUA (ESG/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
3. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
 - *ERG/19/001. Oinarrizko sismikotasuna neurtzeko 12 estazio eraikitzeko ekipamenduaren obrak eta instalazio kontratua.*
4. *Kontratu txikien zerrenda berrikustea.*
5. *Beste gai batzuk.*
6. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Prozedura irekiaz OSAKIDETZAREN 144 ZENTROETAN ENERGIA AUDITORIAK ETA ZIURTAPENAK EGITEKO KONTRATUA (DIRTEC/18/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.**

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Álvaro Pérez Laborda jaunak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta EEEko Zuzendari Teknikoak berretsi du.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorratzeko, batzordera bertaratu da Álvaro Pérez de Laborda jauna, Kontratuaren Arduraduna den aldetik.

Pérez de Laborda jaunak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die. Ondoren, eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, Batzordeko kideek hauxe erabaki dute aho batez:

<<Aurkeztu zituzten eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, honako enpresen eskaintzak prezio-kalitate erlazio onena dituztenak direla izendatzea proposatzen da:

1. Lotea: *Energia auditoriak eta ziurtagiri energetikoak egitea Osakidetzaren Arabako 2 zentrotan, ARISE ENERGY 2014, S.L.k, 7.700 €engatik.*

2. Lotea: *Energia auditoriak eta ziurtagiri energetikoak egitea Osakidetzaren Arabako 17 zentrotan, EUROCONTROL, S.A.k, 23.177,33 €engatik.*

3. Lotea: *Energia auditoriak eta ziurtagiri energetikoak egitea Osakidetzaren Bizkaiko 38 zentrotan, SONINGEO SERVICIOS ENERGETICOS, S.L., 35.286,31 €engatik.*

4. Lotea: *Energia auditoriak eta ziurtagiri energetikoak egitea Osakidetzaren Bizkaiko 34 zentrotan SINCeo2 INGENIERIA ENERGETICA, S.L., 31.450 €engatik.*

5. Lotea: *Energia auditoriak eta ziurtagiri energetikoak egitea Osakidetzaren Gipuzkoako 30 zentrotan AUREN CONSULTORES SP, S.L.P., 27.775 €engatik.*

6. Lotea: *Energia auditoriak eta ziurtagiri energetikoak egitea Osakidetzaren Gipuzkoako 23 zentrotan ORGAUS SYSTEMS, S.L., 23.920 €engatik.>>*

Beraz, honako honi ekingo zaio:

- a) Kalitate-prezio erlazio onena duten eskaintzak egin dituzten lizitzaileei dagokion dokumentazioa eskatzea, Klausula Administratibo Berezien Agirian edo Pleguan eskatzen dena, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan, eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.
- b) Kontratazio-organoari jakinaraztea esleitzeko proposamena, OSAKIDETZAREN 144 ZENTROETAN ENERGIA AUDITORIAK ETA ZIURTAPENAK EGITEKO KONTRATUA (DIRTEC/18/001)ri dagokionez.

2. Prozedura irekiaz EEE TALDEAREN ETORKIZUNEN EREDU ESTRATEGIKOAREN DEFINIZIORAKO ETA BERE ANTOLAKETAREN ERALDAKETA PLANERAKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN KONTRATUA (ESG/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Carlos Aguirre Arana jaunak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta EEEko G.B. eta Z.O.en Zuzendari gisa.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorrazteko, Carlos Aguirre jauna arituko da, Kontratuaren Arduraduna den aldetik. Aguirre jaunak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die.

Eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, Batzordeko kideek hauxe erabaki dute aho batez:

<<Aurkeztu zituzten eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, BMASI STRATEGY, S.L.k aurkeztutako eskaintza, 95.000 euroko zenbatekoagatik (BEZ kanpo) eta bere eskaintzan adierazitako baldintzetan, prezio-kalitate erlazio onena duena dela izendatzea proposatzen da>>.

Beraz, honako honi ekingo zaio:

- c) Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza egin duen lizitatzailari dagokion dokumentazioa eskatzea, Klausula Administratibo Berezien Agirian edo Pleguan eskatzen dena, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan, eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
- d) Kontratazio-organoari jakinaraztea esleitzeko proposamena, EEE TALDEAREN ETORKIZUNEN ERALDAKETA PLANERAKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN KONTRATUA (ESG/19/001)ri dagokionez.

3. Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *ERG/19/001. Oinarrizko sismikotasuna neurtzeko 12 estazio eraikitzeko ekipamenduaren obrak eta instalazio kontratua.*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

4. Kontratu txikien zerrenda berrikustea.

Batzordekideei EEEK esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

5. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.


6. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



Javier Marques Gonzalez jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria